

## Petiri «Agurgarria» Cluñy-koa napar-euskaldun sineste baten jakile

Barandiaranek Madrideko Ediciones Minotauro delakoetan 1960.urtean argitaratu zuen *Mitología Vasca* ospetsuan, hilen arimak berriz agertu litezkela biziei, kondatzen zaigu. Euskal Herri guzian diotenez:

1. *arima herratua*, etxetan sukaldetik sartzen da.
2. arimak ez du itxura argia: hura dela susmatzen, da, ala bere burua aurkezten du.
3. askotan pekatutan hil da.
4. norbait harekin zordun ala hardun da; konduak garbitu behar ditu.
5. Gauaz etortzen da.
6. otoitzak eskatzen ditu, bera purgatorioan delakotz.

Sineste horiek gogoan, 1785.an Juseff Eguiateguy zuberotar idazleak argitaratu nahi izan zuen, *Filosofo Hüskaldünaren Ekbeia* irakurtzen ari nintzen eta hor, gure lehen filosofia liburuan Barandiaranek bildu kondaira berdiña irakurtzen nuen gure idazleak nonbait Petiri Agurgariaren (1092-1156) eskutitzetatik aldatua. Hamabigarren mendeko fraide horrek Lizarran, bere garaian, gertatua kondatzen digu ta Egiategi-k honela aldatzen:

«Petri de Cluñy Frantzian sorthü zen gizon handienetarik bata ta bere berthüdieta, haren denboran, famatienak dio *Navarran Estellako hirian* (aldatzailearen oharra: nere azpimarra), zagoela aitoren seme bat bere sortzepenaz, aberatstarzünez ta bere zelaiadi (a.o. zelai etxalde) ederretzaz erresetü handiz gozatzen zena hirian ta bazterretan: Dn Pedro Enguebert deitzen.

«Adintsü ja zelarik frairetü zen Cluñyko ordenian, nahiz bizitziaren ta herioaren artian bere arimarentzat ütsarte bat; berze frairekila mintzo zenian bere berzaeraz (a.o. konbertsioaz) zioan agerinde (a.o. agerkunde) batek ziala obratü, zian ere haren kondaira egiten laski nori nahi.

«Petiri de Cluñy Espaiñala abiatürrik bere ordenarentzat gaiza (a.o. gauza) hek entzünik, nahiz ere jakin egia joan zen Najerako kontentiala, mintzatü nahiz fraire Engueberti. Obedantzan izenian galtho egin zereion zer zen agerindearen kondaira.

«Enguebert zen gizon astüna (a.o. azturaduna) ta aipatzen zianetarik net behatia (a.o. entzuna), erran zereitzon hitz hek Petiri Cluñy-koak berak ezkiribüz ezarri dütianak: «Alfonsa gaztiak, Alfonsa Handiaren primiak (a.o. seme nagusiak) Kastillan zirelako z jendiak mendaldatü (a.o. beste agintaritza baten pean jarri), etxekal gizon bat igortzen zereitzen, zian erresuma güzian manhatü (a.o. agindu). Eman nion ere mithiletarik bata Santxo izena ziana. Gerla akabi bezain sarri etzerat zen ethorri hantik llabür eritü ta hil.

«Ehortzi günian gure kostüman gisala. Gai (a.o. gau) batian negian, iratzarririk ohian nangoelarik, ikhusten dü gizon bat *sükhaltian* ta süia hontü (a.o. hautsez estali) zena barreiatzen (a.o. sakabanatzen), ordian ilhintien argiak zereitadalarik mamua hobeki agertzen, lotsak nündialarik ere tinkatzen Jinkoak eman zeitadan indar beharra galtho egin ahal nereitzoan, nor zen ta zergatik jiten zen süiaren desestaltzera? Apalki zereitan arrapostü (a.o. erantzun). *Ene bürüzagia etzitiala lotsa Santxoniz zure mithil gaxoa Kastillarat banoa soldado athe batekila* (a.o. multso batekin) *bekhatü egin dütüdanen ber lekhian garbitzera.*

«Bortizkiago balesatürik (?) nereioan erran, Jinkoaren mezütik haratko bazirade, zeren honat jin zirade? Harek: *extakizüla gaitz ene Bürüzagia, ezi Jinkotze baimenarekila batian dago gaiza* (a.o. gauza). *E'niz esparantza gaberik zokhorri badereitzazü emaiten.* Berriz galtho egin nereioan, zer nahi zian niganik? Harek: *badakizü nere nausia, igorri nüdüzüla gizona santü gertatzen ezten ofizioala, gazteroak, gerthaldi gaistoek ta kidarri txarrek die laister soldadoaren arima galtzen.* Gerlan egin dü gaitzki handirik, ebatsi orotan, *arpillatü elizak ta hartakoz nago nausia handian,* (a.o. antsia handian) *bena ene nausia maite ükhen banaizü bizian e'naizazüla abatz herioan.* *Zure aberatstarzünetarik deuse-re, bena bai zure othoitziak ta amoinak* (a.o. limosnak) *dereitzüt galtho, ene minak ezti(tü)ren dütienek.* *Nere bürüzagisak zor dereit zortzi peseta edo üngürünia* (a.o. hurbil), *othoi detzan jar, ez ene khorpitzaren extialakoz behar bateterik, bena bai arimarentzat zien onesgümemen* (a.o. bendizioen) *aidürü dena».*

«Eztait nola biuotztoi nintzan mamü harekila nian haiñbeste gozo mintzatian, nola lotsa egin betzeitan. Galtho egin nereioan ere nere herritar baten berri, Dn Pedro de Jaca? Santxok, nausia e'nandin azken herriko gosetian bere honki eginek ziela paradüsiala eraman. Nereioan ere akadoi (a.o. epaile, juez) ezagütü nian baten berri eman leizadan? Erran zeitadan, saldü zialakoz *justicia* inferniam zagoela següro.

«Jakín nahi ere zerbait Alfonsa Handiaz ere, ohiaren hüillan (a.o. hurbil) zen leiho batetik berze batek erran zereitadan: *Santxo beno bost urthez hil zabarrago nizalako z niri ta ez hari printze harez mintza*

*zite, dakidalakoz harek beno gehiago berri.* «Izitü nündian botz harek ta argizagiaren (a.o. *ilargiaren*) medioz ikhusi nian gizon bat leihoan ükhündoak jarririk. Othoitü nian non zen Errege Alfonsa erran laizadan? harek zakiala frairien othoitziek honki handirik egin zereiela, bena non zen orai erran e'lirikiala (a.o ez lezakeala). Hantik Santxori soz (a.o. begira) erran zereioan, *Goazan ordü da abia gitian.* Zen Santxo jaiki ta joaiten zelarik lastimalki othoitzen nündialarik azkenekoz. Zü ta ene bürüzagisa nitzaz othoi ohart zitezte, abiatzen zelarik zereitan erran.

Biharamenian Enguebert-ek emaztiz jakin ziala ber ikhusmena ükhen ziala biek ta laister konplitü ziala Santxoren othoiak.

---

Kondaira harrigarri hontan, beraz, euskal mitologian bezala arima herra-  
tuak, zorrak pakatzea, otoitzak eskatzen ditu baita azkenik, bildu sinestetan  
bezala, sukaldean agertzen ere. Ez da miresgarri Lizarra, Estella garai hartan  
euskalduna zen osoki Etsenplu honek, gertaldi horrek Egiategik bezala idaz-  
teko, gure mitologia testu zaharrean arki genezakela azkartzen gaitu.

Orain nor zen Petiri edo Petri de Cluñy, Egiategik izendatzen duena  
halaxe? Frantsesek Pierre le Vénérable izenaz ezagutzen duten Cluny-ko  
abadea da Auvernian 1092, urtean jaioa hogeitahamar urteetan Cluny-ko  
zortzigarren abadea izentatürik ordenaren administralgoa ta ohitura onak  
berriz jarri zituen, ta 1156 ean hil arteraino bi mila konbentu ireki Europa  
guzian sakabanatuz. Cluny-ren urrezko haroa XII garren mendea izan da,  
penintsulan 31 abadia eraikitzen baitira, Errekonkistan sartzeko. Islamaren  
aurkako borrokaz kanpo Petiri Agurgarria, bakezalea zen baina Europa gaindi  
ibiliaz zuzenki abadia guziak begipean edukitzen zituen, holaz Najeran En-  
guebert fraideak bere kondaira egin zion. Jüsef Egiategi zuberotarrak 1785.an  
bere liburua egin zuenean nonbait Cluny-ko abadearen eskutitzetarik hartu  
zukean, gure sineste horren lekukoa XII garren menderaiño atzeratuz.

Mientras leía el manuscrito número 155 de la Bibliothèque Nationale  
de París, primer libro laico de filosofía en euskara de 1785, escrito en sule-  
tino arcaico y literario por Juseff Eguiateguy encontré un relato atribuido  
a Dn Pedro el Venerable abad de Cluny en el siglo XII, que en su paso por  
Navarra, fue a Nájera a visitar a fray Pedro Enguebert de Estella. El monje  
le contó cómo ingresó en la orden después de una aparición de un alma de  
antepasado. Este relato procede, acaso, de una edición de las doscientas cartas  
del abad que pudo leer Egiategi, o a lo mejor de una colección de relatos  
religiosos. De toda forma, la leyenda sigue el esquema cultural de la mitolo-  
gía vasca.

Para resumir la leyenda de Dn Pedro Enguebert de Estella:

«de *noche* se despierta Dn Pedro, encuentra en la *cocina* una alma errante que está deshaciendo la brasa cubierta por la ceniza. (El relato no nos dice que la ama de casa tiene que conservar este fuego, *sü-azia*(Z.) si se deja apagar, la desgracia y la muerte entran en casa.) El amo pregunta a ver quién es? No *reconoce la sombra*, se trata de su servidor Sancho que su amo mandó a Castilla para luchar contra los rebeldes sublevados contra el rey Alfonso el Joven. Suplica Sancho a su dueño para que la ama de casa *pague una deuda* de ocho pesetas y le pide *oraciones* para que le sean perdonados sus pecados.

«Dn Pedro de Enguebert hace preguntas al alma errante que le responde diciendo que Dn Pedro de Jaca está en el paraíso perdonado por su beneficiencia durante el hambre ocurrido en Estella, mientras un juez con quien trató Dn Pedro está en el infierno por haber vendido su *justicia* (en castellano en el texto). Dice Sancho que las oraciones de los monjes ayudan las almas errantes y pide a Dn Pedro de Enguebert y a su *esposa*, oraciones para el descanso de las almas de los soldados que la guerra transforma en malhechores.

«Respondiendo a su amo el alma de Don Sancho le dice que las mismas oraciones alivian las penas del rey Alfonso el Grande; entonces cuando Dn Pedro cuenta lo ocurrido a su esposa, ella le dice que ha visto la misma aparición y ambos ingresan en las Ordenes.

El esquema corresponde al que podemos leer en Mitología Vasca op. cit., pp. 62-64):

Por lo dicho se comprenderá que los personajes a quienes se tributa el culto doméstico son las almas de los antepasados (p. 62)... Pero en algunos sitios, principalmente en Vizcaya, se les considera como luces y como ráfagas de viento... (p. 62) ...se dan a conocer apareciendo en forma de luz, de nube, de sombra (p. 63)... (en nuestro relato el amo, *bürüzagi* no reconoce al servidor, *mithil*).

«...Regresan, sin embargo, frecuentemente a la superficie durante la noche (en nuestro relato, de noche), sobre todo a su *etxe* (en nuestro relato, a casa de su amo). ...Regresan a poner en regla cuentas que al morir, dejaron pendientes (en nuestro relato, una deuda de ocho pesetas que le debe su ama) (p. 62).

«Se refieren leyendas según las cuales, tales conductos (subterráneos) desembocan en hogares o cocinas (en nuestro relato en el *sü-kalte*).

Este miedo que tenemos a nuestros antepasados se lee también en la obra Estelas funerarias del País Vasco Norte, *Euskal Herriko harri biribillak* Ed. C. A. P., Donostia 1970, como en Mitología Vasca, pero, para no alargar más, resumimos diciendo que el culto doméstico a las almas del purgatorio corresponde al miedo a los muertos antiguo; este culto presidido por el ama de casa, *etxeoanderea* lo describe Pedro el Venerable, abad de Cluny cuando escribe que Sancho pide las oraciones de *bürüzagisa*, de su ama y según dice Barandiarán:

«en tales condiciones era ella quien podía dirigir las funciones del culto doméstico (op. cit., p. 65).

En la página 89 de Mitología Vasca, J. M. Barandiarán utiliza un texto del siglo XV de García de Salazar *La crónica de siete casas de Vizcaya y Castilla* (1454) para mostrar la antigüedad de la creencia en *sugaar*, dragón que puede fecundar a una mujer, nosotros añadimos este texto vasco suletino de Josef Egiategi, traducción de un relato del siglo XII, extracto del capítulo *Arima herratietzaz* (de las almas errantes). De seguro la multitud de textos históricos y religiosos tratando de nuestro país conserva todavía un caudal ignoto de testimonios sobre las creencias y vida de nuestros antepasados vascones.

Txomin PEILLEN, UZEI-koa.

## BIBLIOGRAFIA

- AZKUE, R. M., S. J., *Euskalerraren Jakintza*, Ed. Espasa Calpe. Madrid, 1961, 162 pp. (bilingüe).
- BARANDIARÁN, José Miguel, *Mitología Vasca*, Ed. Minotauro, Biblioteca Vasca. Madrid, 1960, 162 pp.
- Euskal Herriko harri biribillak* (Estelas funerarias del País Vasco Norte), Ed. C. A. P. Donostia, 1970, 212 pp. il.
- EGUIATEGUY, Juseff, *Filosofo Hüskaldünaren Ekheia*, manuscrito núm. 155 de la Bibliothèque Nationale de París, inédito, Zuberoan, 1785, 213 pp.
- POÇA, Andrés de, *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas* (1587), Ed. Minotauro, Madrid, 1960.

